

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko otsailaren 23a. VIII. urtea. 2.179. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

Juan Bautista Aranzabe Ustez lapurtutako haur baten aita

## «Tolosan kasu gehiago azaltzen ari dira, Ibarran ere badugu bat»

Tolosarra duela hiru urte sortutako Anadir elkarteko kidea da; seme jaioberrira zazpi hilabeterekin jaio zen Tolosan eta Donostiako ospitalera bidali zuten taxi batean

Donostian esan zioten haurra hil egin zela, baina ez zioten hilotza ikusten utzi; «ahal dugun heinean azkeneraino joateko prest» daudela dio Aranzabek 03



A. IMAZ

→ **Ia hemen dira Tolosako Inauteriak.** Astebete inguru geratzen da Ostegun Gizona iristeko. Aurtengoan berrikuntzarik nabarmenena musikarekin du zerikusia. Izan ere, The Wailers reggae talde jamaikarraren eta Gatibu eta Keiran euskaldunen musika izango da entzungai. Era berean, barrakak merkeagoak izango dira. 04-5

### Aukeratu dute Leitzako Aurrera Kirol Elkarteko zuzendaritza berria

Batzordeko sei kideetatik lau aurreko berberak izango dira; Unai Olano eta Aintzane Arraiza gazteak dira batzordeko kide berri bakarrak 07

### Jordi Ferrer

Dokumental egilea

«Sahararen inguruan dagoen nahaste historikoa azaldu nahi izan dugu»

Bihar ikusi ahal izango da 'El problema' dokumentala Ikaztegiatiko liburutegian 20:00etatik aurrera

Elkarrizketa 02

[www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

herrietako informazioa inoiz baino gertuago  
ezagutu gure webgune berriak

[www.ibarraldea.hitza.info](http://www.ibarraldea.hitza.info) • [www.alegialdea.hitza.info](http://www.alegialdea.hitza.info) • [www.anoetaldea.hitza.info](http://www.anoetaldea.hitza.info) • [www.villabona-aiztondo.hitza.info](http://www.villabona-aiztondo.hitza.info)  
[www.leitzaldea.hitza.info](http://www.leitzaldea.hitza.info) • [www.tolosa.hitza.info](http://www.tolosa.hitza.info)

# Ostatu taberna-jatetxearen kudeaketa lehiaketara ateratu berri du udalak

Egungo arduradunek apirilaren amaieran utzi egingo dute; izena emateko epea martxoaren 7a arte da

**Imanol Garcia** Ikaztegieta

Ikaztegieta Udalak beste behin lehiaketara ateratu du Ostatu bezala ezagutzen den herri ostatuaren kudeaketa. Egungo arduradunek, arrazoi pertsonalak medio, utzi egin behar dute apirilaren amaierarako eta udalaren asmoa Ostatu egun bat bera ere itxi gabe egotea da. «Egun herritarrek zein herriko eta inguruko obretan dauden erabilpen handia ematen diote Ostaturi eta horregatik ez dugu nahi etenik izatea eskuz aldatzean», azaldu dute udaletik.

Ostatu hainbat zerbitzu ematen ditu: taberna, jatetxea, denda eta logelak. Interesatuak martxoaren 7a arte dute epea beharrezko dokumentuak aurkezteko. Lehiaketaren esleipena eta hitzarmenaren sinatzea apirilaren erdialdera egingo du udalak. Arduradun berriak maiatzaren hasieran jarriko



Ostatu taberna-jatetxea herriaren erdian dago, egun udaletxea dagoen eraikinean. HITZA

dira martxan. Hitzarmena hasiera batean bi urtetarako izango da eta beste bi urtez luzatu ahalko da. Gutxienez 400 euroko alokairua ordaindu beharko da. Lehiaketara aurkezten direnek kopuru hori handitu dezakete eta horrek

bere puntuazioa izango du. Eskaintza ekonomikoak gain, kon-tuan hartuko da kudeaketarako proiektua. Herrian erroldatuta egoteak ere puntu bat ematen du. Horrez gain, jendearen aurrean lanean ariko denak euskara jaki-

tea ezinbesteko baldintza da. Lehiaketara aurkeztu beharreko dokumentazioaren inguruan informazio gehiago jaso daiteke Ikaztegieta udaletxean edo otsailaren 18an argitaratutako Gi-puzkoako Aldizkari Ofizialean.

## Basherri taldeen Topaketan parte hartzeko deia egin dute EHNEK eta Biolurrek

Hilaren 25ean eta 26an egingo da Usurbilen; eskualdean bi talde daude, Tolosan bat eta Aiztondon bestea

**Erredakzioa**

Biolur nekazaritza ekologiko elkarteak eta EHNEk gonbidapena luzatu diete Basherri kontsumo taldeko partaideei asteburu honetan Usurbilen egingo diren topaketara joateko. Aurtengoak bigarrenak izango dira. Eskualdean bi Basherri talde daude, mugimenduen webgunean zehazten denez. Bat Tolosaldekoa, Tolosan elkartzen dena, eta bestea Aiztondokoak, Zizurkilen elkartzen dena. Bi egunetan izango da topaketa. Hilaren 25ean kontsumo taldeetan dauden baserriarrei zuzendutakoak izango da. Hilaren 26an baserriarrek zein kontsumitzaileak parte hartzea gonbidatuta daude. Izena emateko [ebel@ehneg.net](mailto:ebel@ehneg.net) helbidera idatzi edo 943 65 42 81 zenbakira deitu behar da.

**Jordi Ferrer** • Dokumental egilea

# «Jendea shock egoeran gelditzen da filmean ikusten den basakeriagatik»

**I. Garcia** Ikaztegieta

Saharar herriaren testigantza jasotzen duen *El problema* dokumentala ikusi ahalko da bihar Ikaztegieta liburutegian, 20:00etan. Jordi Ferrer eta Pablo Vidalek egindako filma da eta hainbat sari jaso ditu, besteak beste, iazko Donostiako Zinema eta Giza Eskubideen Jaialdian. Zuzendarietako bat, Jordi Ferrer (Barcelona, 1960), bihar izango da Ikaztegieta filma aurkezten eta ondoren izango den solasaldian. Filmaren aurrerakina ikusi nahi duenak, horretarako aukera du [www.elproblema.net](http://www.elproblema.net) helbidean.

**Leku askotan erakusten ari zarete El problema filma eta jaialdian sariak jasotzen zabilazte. Gustura al zaude dokumentalaren ibilbidearekin?**

Oso gustura gaude. Batera eta bestera gabilta bidaiazten. Lehen guk bultzatzen genion dokumentalari lana bukatzeko eta orain dokumentala da gugandik tiratzen ari dena.

**Laburbildu zenezake filmaren gaia?**

Marokok okupatuta duen Saharari buruz dagoen desinformazioaren inguruko dokumentala da. Bertara ezin da joan kamerarekin edo kazetari bazara, zuzenean bota egiten zaituzte bertatik. Filmean oso garbi ikusten da horren atzean giza eskubideen urraketa dagoela. Filmean argitara ateratu dugu Marokori, Espainiako Gobernari eta nazioarteko komunitatearen zati bati interesatzen ez zaiona. Leku askotan erakutsi dugu eta jendea shock egoeran gelditzen da bertan ikusten den basakeria guztiagatik. Berdin gertatu zen Guantanamo edo Abu Ghraibeko irudiak ikusi genituenean.

**Irudiak indar handia du, beraz.**

Dirudienez, gaiari buruz irakurtzen baino empatia handiagoa sortzen da irudiak ikusten direnean. Hori zen gure asmoa eta uste dut lortu dugula. Horrez gain, dagoen nahaste historiko guztia azaltzea da gure asmoa. Jendeak dokumentala ikusten duenean esaten du: «Orain ulertzen dut».



Pablo Vidal eta Jordi Ferrer, 'El problema' filmaren egileak. HITZA

**Edozein gatazketan informazioa izatea, zer gertatzen den ulertzea, izaten da garrantzitsua, ezta?**

Gai hau komunikabideek nola jorratzen duten adibidea Aminetou Haidarrekin gertatu zena da. Aurreko abenduan 32 egunez gose greba izan zen eta egunero albiste-gietan azaltzen zen. Egun horiek pasatu ondoren, klean norbaiti galdetu gero zertaz zihono hori guztia, ez zekien ondo zer erantzun: «Emakume bat aire-

portu batean zegoela, ez zietela uzten sartzen...». Beraz, ez da berdina albisteak ematea eta informatzeko eta Aminetouren kasuan oso garbi ikusi zen hori.

**Nora jo duzue Mendebaldeko Sahararen egora azaltzeko?**

Asko jo dugu artxiboetara, historia ondo ulertu zedin. Ez dugu bakarrik akademikoak kamerari hitz egiten jarri, Ingalaterrako, Alemaniako eta Nodoko artxiboetara ere jo dugu. Esaten da Maro-

koren inbasioa Martxa Berdearekin hasi zela eta hor gelditzen gara. Gu, aldiz, saharar herriaren exodoaren irudien bila joan gara eta hor ikusten da basamorturantz ihesi zihozela nola fosforo zuriarekin eta napalmekin bombardatzen zituzten. Hori guztia ezkutatu digute. Jendeak baditu gaiaren inguruko ezagutza batzuk, baina asko dago esateko: urte guzti hauetan izan den kolonizazioa, utzikeria, inbasioa... Guk jakiterik nahi ez dutena. Filma bukatzen denean, egin esan pare bat minutuz hitz egin behar izaten dut, jendea oraindik shock egoeran dagoelako eta ez dago ezer galdetzeko moduan.

**Nola filmatu ahal izan duzue Sahararen bertan?**

Ez harrapatzea da kontua, beste material guztia kentzen baitute. Ahal dugun gehiena grabatu dugu polizia jositako leku batean. Han egoteagatik bakarrik elementu arraroa zara, ez baitago turismorik. Ez dago inor ez dena sahararra edo marokarra.

**Izan duzue Marokoren edo Espainiako Gobernuaren erreakziorik filmaren inguruan?**

Isilean daude eta hori interesatzen zaie. Polemikan sartzen badira beraien kalterako eta dokumentalarentzako publizitatea izango zen. Badakigu lanaren eta webgunearen jarraipena egiten ari direla.



A. IMAZ

## Juan Bautista Aranzabe • Ustez lapurtutako haur baten aita

Tolosaldean haur lapurreten inguruko hainbat salaketa egin dira. Gertaerek euren artean antzekotasun handiak dituzte. Horietako bat Juan Bautista Aranzaberena da.

# «Urteak pasa ahala zeure buruari galderak egiten hasten zara»

### Asier Imaz

Haur jaioberria kanpaza batean zuela, taxiz Tolosatik Donostiako ospitalera bidali zuten Juan Bautista Aranzabe (Tolosa, 1943). Hurrengo egunean, haurra hil egin zela esan zioten Arantzazuko Amaren ospitalean. 1973. urtea zen. Duela hiru urte, Antonio Barrosok bere jaiotze agiria faltsutua izan zela deskubritu zuen. Bere kasua salatzeke, Anadir elkartea sortu zuen. Orduz geroztik, ustezko haur lapurreten kasuak bata bestearen atzetik iritsi dira elkartera. Juan Bautista Aranzabe tolosarra Anadir-eko kidea da.

#### Non jaio zen zuen haurra?

Tolosako San Cosme eta San Damian ospitalean. Egun hartan, haur bat baino gehiago jaio zirela gogoratzen naiz. Sendagileak ordea, gau guztia nire andrearen ondoan pasa zuen. Hori ez da normala eta andreak hori beti esaten du.

#### Behin eta berriz galdetuko duzue orain, zergatik?

Une hartan ez duzu galdetzen, baina gero...

#### Ba al dakizu sendagile hura norzen?

Orain hilda dago.

#### Zazpi hilabeterekin jaio zen haurra.

Bai. Baina guk beti esaten duguna, zazpi hilabeteko asko eta asko kalean dabilta. Horrek ez du ezer esan nahi.

#### Lehen kezka beraz, sendagilearena izango litzateke.

Beste arazo bat haurra jaio eta hurrengo egunean sortu zitzaizgun. Tolosatik Donostiako Arantzazuko Ama ospitalera bidali ninduten haurrarekin, taxi batean eramaten dira, eta niri taxia jarri zidaten. Umea kanpaza batean sartu eta horrela bidali ninduten.

#### Zergatik bidali zintuzten Donostiara?

Tolosan ez zegoen haur txikiengiztat kabi edo sehaska berezirik, eta Donostian bai. Hor sartu behar zela esan zidan. Niri ez zidaten ezer erakutsi, ea ikusi nahi nuen galdetu ere ez zidaten egin. Paper batekin ehorztetxera bidali ninduten. Bertara joan eta faktura ordaindu nuen.

#### Noiz itzuli zinen Donostiara?

Hurrengo egunean joan nintzen berriro eta sendagileak hil egin zela esan zidan. Niri ez zidaten ezer erakutsi, ea ikusi nahi nuen galdetu ere ez zidaten egin. Paper batekin ehorztetxera bidali ninduten. Bertara joan eta faktura ordaindu nuen.

#### Hileta egin zenuten beraz, nahiz eta gorpua ez ikusi.

Ez genuen hiletarik egin. Hil egin zela esan ziguten eta han bukatu zen historia.

#### Eta gorpua egin zer egin zutela esan zizuten?

Guri ezer gehiago ez ziguten esan. Une hartan, hil dela esaten dizutenean, ez duzu beste ezer pentsatzen. Gaurko egunean bai, gauzak atera direlako, baina... Andreak berriz, beti esan izandu dit ea zergatik ez zidaten gorpua erakutsi, beti kezka horrekin egon da.

#### Ba al dakizue non lurperatu zuten?

2000. urtean, Donostiako Polloe hilerrira joan ginen. Hango enkargatuak zerrendan zegoela erakutsi zigun. Baina non zegoen galdetuta, obrak egin zirela eta gune hartako hilobiak galduta zeudela esan zigun.

#### Gorpua mugitzen direnean, ez al da horren berririk ematen?

Nik horrela usten nuen, baina guri ez ziguten inoiz ere deitu. Hor zerbait gertatu dela pentsatzen hasten zara.

#### Eta galderak bata bestearen atzetik agertuko dira, ezta?

Hil zela esan zigutenean, lehen esan bezala, ez duzu ezer gertatuko zenik pentsatzen. Urteak pasa

ahala, pentsatzen hasten zara. Zergatik ez zidaten gorpua erakutsi edo zergatik ez zizkidaten paperak eman. Orain, Anadir elkartea azaldu denean, kasu piloa agertu dira eta gureak antzekotasun handia dauka horiekin.

#### Zuen esku dagoen dokumentu bakarra, beraz, ehorztetxeko faktura da.

Bai. Sinaduraren gauean P.O. jarren du bertan. *Por Orden.*

#### Berriro itzuli al zarete ehorztetxera?

Beste izen batekin baina leku berean aurkitzen da. Hango langilearekin hitz egitea posible zen jakin nahi genuen, baina garai hartako langileen zerrendarik ez omen dute. Norbaitek aginduta sinatu zuen Anjel Arteaga izeneko langile batek.

#### Guztu honen inguruan, zer dio zure emazteak?

Berak beti izan du kezka hori. Askotan galdetu dit ea gorpua zergatik ez zidaten erakutsi. Hilerrira joan behar genuela ere behin baino gehiagotan errepikatu du.

#### Ate hori istean, zer egin zenuten?

Ez genekien zer egin edo nora joan.

#### Hau dena, Anadir elkartean berri izan aurretik egin zenuten, zuen kasuaz.

Horrela da. Ondoren hasi dira te-

lebistan azaltzen gurearen antzeko kasuak.

**1940-1980 tarte horretan, bi milioi adopzio egon omen ziren. Anadir elkarteko abokatuen esanetan, hauen %10a, inskripzio faltsuekin izan ziren, hau da, 200.000 haur.**

Horrek ez du esan nahi garai horietan «hildako» haur guztiak lapurtuak izan zirenik. Batzuk horrela jaioko ziren, baina kontua hori da, nortzuk? Garai haietan, beste gauza bat ere gertatzen zen; kalean lan egiten zuen emakumearen haurra mojek hartzen zutela, eurekin hobeto egongo zelakoan.

#### Anadir pilatzen ari den kasu hauetan, sendagileez gain, apaizak eta mojak ere ageri dira.

Horrek ere badu bere azalpena. Gaur egun bezala, ospitaleetan ez ziren erizainak edo langileak egoten. Mokek egiten zuten lan hori eta dena beraien eskuetatik pasatzen zen.

#### Tolosaldean egon al da beste salaketarik?

Tolosan adibidez kasu gehiago azaltzen ari dira. Ibarren ere badugu bat. Estatu mailako kasuak irakurtzean ere, denak antzekoak direla ikusten duzu. Bati, soldaduskako papera eta guzti iritsi zitzaion.

#### Donostiako ospitalaren inguruan salaketa gehiago egon al dira?

Anadir-en azken datuen arabera, Euskadin 75 kasu salatu dituzte. Donostiakoak hor barnean aurkitzen dira.

#### Kasu hauek entzutean, berriro bilaketa lanein zentzioten.

Berriro ere epaitegira joaten hasi ginen. Lehen ere izanda gaude, paperak eskatuz, baina inoiz ez digute ezer eman. Tolosan bizi naiz eta ez dutela ezer aurkitu esan didate hemen. Gero Donostiara joan nintzen eta bertan, 1976. urtea baino lehenagoko paperak ez dutela esan zidaten. Gure haurra 1973an jaio zen. Ez dakit datuekin zer egin duten. Osakidetza ere eskatu dugu, mediku txostena, baina Donostian azken 10 urteetakoak bakarrik omen dute. Besteak Gasteizen omen daude. Han ere eskatu dugu eta orain itzaroten gaude.

#### Eta ondoren zer etorriko da?

Anadir-etik DNA frogatik egiteko laguntzak lortzen ari dira. Berez 400 euroko kostua baldin badute, elkarteko kideok 90 ordainduta egingo ditugu. Eusko Jaurralaritza psikologikoak ere jarriko omen dituzte. Gure partetik, aurrena epaitegiko eta Osakidetza paperak lortzen saiatuko gara. Ea irregularitasun guzti hauek argitzen diren. Ahal dugun heinean, azkeneraino joateko prest gaude.

#### Nahiz eta gurasoek DNA frogatik egin, ondoren semea edo alaba aurkitu beharko litzateke.

Oso zaila da, bai, ia ezinezkoa dela ez esateagatik. Zure semea lapurtua izan bada, ez dakizu non dagoen, ez non bizi den ezta nork erosi duen ere. Ziurrenik gainera urrun egongo da eta gauzak argitzea oso zaila izango da.



# The Troublemakers Blues Review, The 44 dealers eta Red House taldeak, zuzenean

Larunbatean Zizurkilgo Blues Musikaren IX. Jaialdia izango da Atxulondo, Egarrri eta Pasmus tabernetan

**Erredakzioa** Zizurkil

Azken urteetako ohiturari jarraituz, hutsik egin gabe datoz blues doinuak Zizurkilera. Larunbatean Zizurkilgo Blues Musikaren IX. Jaialdia, *Zizurkil*en ezer ez eta festa zikloaren barnean izango da. Zizurkilgo Udalak, herriko hiru tabernen partaidetzarekin antolatuta du.

The Troublemakers Blues Review, The 44 Dealers eta Red House taldeak joko dute. Kontzertuak hurrenez hurren, hurrengo tabernetan izango dira: Atxulondo, Egarrri eta Pasmus. Kontzertuak entzuteko sarrera doakoa izango da.

The Troublemakers Blues Review taldeak 23:00etan emango dio hasiera jaialdiari Atxulondo tabernan. Lichis, La Cabra Mecanica taldeko liderra eta Julian Kanevsky, Andres Calamaro abeslari argentinarren gitarra-jotzailea, ohiko taldeetan atsedena hartuta, Manolo del Campo, Def con Dos taldeko partaidearekin elkartu dira blues emanaldiak eskaintzeko. Zuzeneko hau, bluesaren ageriko maitaleentzat eta jakin gabe ere maitale diren horientzat izango da.

Hauen atzetik, The 44 Dealers taldearen txanda izango da Ega-



The 44 Dealers taldeko kideak Egarrri tabernan izango dira. HITZA

ri tabernan. Zakur zaharrak eta odol gaztea duten musikari beterranoek osatutako banda da. Taldeko kideek hogeitau baina gehiago daramatzate agertokietan bluesarekin lanean. Zuzenekoetan Chicagoko eskolak berezko duen errepertorioa eskaintzen dute, 50. eta 60. hamarraldietako blues man hoberenei keinu eginez. Eta bukaera emateko, 01:30ak aldera, Red House taldearen kontzertua Pasmus tabernan

izango da. Jeff Espinoza kaliforniarra eta Francisco Simon madrildarraren arteko aspaldiko adiskidetasunaren, eta eskarmentu handiaren emaitza da talde hau. Ezinezkoa litzateke Red Housen historia hitz gutxitan laburbiltzea. Zuzeneko emanaldietan bizi daitekeen indar eta dotoretasunaren sinonimo dira. Txundituta uzteko modukoak dira emanaldi guztiak eta guztiz gogoangarriak.

## ↓ Zizurkilgo IX. Blues Jaialdia

### HILAK 26, LARUNBATA

■ **The Troublemakers Blues Review.** 23:00etan emango zaio hasiera IX. jaialdiari. Atxulondo tabernan izango da.

- **The 44 Dealers.** 00:15ean, Egarrri tabernan joko dute.
- **Red House.** 01:30ean, Pasmus tabernan izango da azken kontzertua.
- **Doan.** Kontzertuak ikusteko ez da sarrerarik ordaindu behar.

## AHTk «osasuna murrizten» duela salatu du Elkarlanak

**Erredakzioa** Tolosa

Tolosako anbulatorioaren aurrean, eskuorrien bidez, informazioa banatzen aritu ziren atzo goizean AHT Gelditu! Elkarlaneko kideak. Lekua apropos aukeratu zuten, izan ere Tolosako anbulato-

ria «pribatizatze» egiten ari diren saiakera salatu nahi zuten: «2011n AHTrentzat 275 milioi euro gastatzeko aurrekontua egiten ari zirela, iaz Osakidetzan, 260 milioi euro murriztu zituzten. Esaterako, larunbatean 46 osasun zentro itxi dituzte».



Anbulatorioaren aurrean banatu zuten informazioa. R. CALVO

## ↓ Gutuna

### AHTrik ez!

#### Larunbatean denok Tolosara!

Ama lurra negarrez ari da. Abiadura Handiko Trena eraikitze obrak aurrera doaz eta haiekin batera, Ama Lurra lantzen duten baserriarren desjabetzeak. Euren bizimodua ez ezik, Euskal Herriar guztiona ere baldintzatu nahi dute.

Munstro txikitzaile honetan xahutuko den dirua, krisia bere aurpegirik bortitza erakusten ari den garai honetan, ez da langabezia eta lan baldintza ezin prekarioagoetan dauden langileei laguntzeko erabiliko, ez osasun zerbitzu publikoak zein hezkuntzakoak hobetzeko, ezta herritarren gainontzeko lehen-

mailako beharrei erantzuteko ere. AHT zertarako? Euskal Herria, independentzia eta sozialismo egarrri dena, zapaltzeko beste tresna estrategiko bat bezala darabilte, herri txikiak urrundu eta despulatuz, kapitalismoaren eskema jarraituz diseinatutako euren planoan inposatzeko helburuarekin.

Euskal Herriak ez du AHTrik behar, Euskal Herriak ez du AHTrik behar, Euskal Herriarrok aske bizi behar dugu, gure hitza errespetatua izan dadin eta gure beharrak ase daitezten. Ez dugulako behar, ez dugulako nahi, AHTrik ez!

■ **Tolosaldeko ezker abertzalea.**



Hilberriak

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

**HILETAREN BALIOA**  
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**

www.funerariavascongada.com

# Aurrera Kirol Elkarteak zuzendaritza berria aukeratu du biltzarrek

Batzordea sei kidez osatuta dago, eta kide gehienak aurreko batzordea osatzen zuten berberak dira

**Maier Ugartemendia** Leitza

Leitzako Aurrera Kirol Elkarteak ezohiko batzarrean zuzendaritza berria aukeratu zuen pasa den ostiralean.

Batzordea bi urtetik behin berri behar izaten da. Horretarako, bi urtez behin egiten den batzarrean biltzarrek onartzen du hautagaiak batzarreko kideak izanen diren ala ez.

Zuzendaritza berria sei kidek osatzen dute. Batzordea aurreko kide bereberak osatzen dute gutxi gorabehera. Lehendakaria Karlos Agirre izango da, azken sei urteetan bezala. Lehendakariordea Julian Zabaleta izango da. Idazkaria Patxi Saenz eta diruzaina Iraitz Uriarte. Kirol Koordinatzailea, hau da, elkarte ezberdinen arteko koordinazioaz arduratuko dena, Unai Olano izango da. Azken hau pilota eskolako arduraduna eta bokala ere izango da. Aintzane Arraiza ere bokala izango da. Bi hauek dira batzordeko kide berriak.

## Batzordea «ezin osatuz»

Batzorde berria «kostata» osatzen dutela dio Karlos Agirre lehendakariak. Oraingoan ere, bi deialdiren beharra izan dute batzordea osatu ahal izateko, eta bigarren deialdian ere 350 bazkide-tik 10 edo 12 pertsona inguru soil-



Aurrera Elkarteak zuzendaritza berria du. N. GARZIA

lik agertu ziren. Momentu batean arrazoi honengatik «elkartea istea ere planteatu zen». Agirrerren hitzetan «pena da jendea ez agertzea, jende multzo bat lanean ari baita eta mugimendu handia baitago».

Datozen bi urteetan lanak «ahal den hobekien» egitea da batzordearen asmoa. Elkartearen herriararen bilgune da. Aurrera Kirol Elkartearen baitan talde des-

berdinak aurkitzen dira, besteak beste, futbol taldea, pilota eskola, dantza taldea, mendi taldea eta zaldi taldea. Eta hauek bilerak ere elkartean egiten dituzte. Beraz, hurrengo bi urteetarako asmoa «dagoenari eustea» da. Oraingoan, «gauzak lehen bezala eramaten» saiaturiko dira eta ikusiko da bi urte barru nola antolatuta eta osatuko den zuzendaritza berria.

# Kaldereroetarako azken entseguak egiten ari dira

Gaur 19:30ean izango dute azken entsegu ostiralean kaldereroen kalejiran eta dantzan atera behar dutenek

**M. Ugartemendia** Ibarra

Hauspoa Kultur Elkarteak, Alurr Dantza Taldeak eta Loatzo Musika Eskolak Kalderero egunerako antolatutako kalejiran parte hartzeko entseguak egingo dute gaur, 19:30ean Alururen lokal zaharrean, Ibaigainen. Heldu eta hau-

rentzat da deia. Hauek zartagiak eta mailuak hartuta joan beharko dute entsegura. Hauspoa Elkarteak herritar guztiak entseguan eta kalejiran parte hartzeraz animatzen ditu.

Kalejirarako, ostiralean 18:00etan elkartuko dira denak herriko plazan eta 18:30ean abiatuko dira txarangarekin batera. Kalejiran denek dantzatzeko dute eta geldialdi bakoitzean taldetxo batek egingo du dantza. Plazan azken saioa egin eta gero, txorixo mutur bana jango dute eta txarangaren batera dantzan jarraitzeko aukera izango dute.

# Bizikletarekin Leitzaldea ezagutzeko aukera

Irteera Leitzako geltokitik abiatuko da 09:00etan eta lau ordu inguruko iraupena izango du

**M. Ugartemendia** Leitza

Mendibil Mendi Taldeak mendiko bizikletaz egiteko irteera antolatuta du larunbat honetarako. 09:00etan abiatuko dira Leitzako

geltokitik, handik Idiazabalera eta Uitziko Gainera ere joango dira. Irteera Leitzara itzuliz abiatuko da.

Irteerak 4 ordu inguruko iraupena izango du, 30,5 kilometro egingo dituztelarik. Mendi bueltaren zailtasuna ertaina da. Eta bertan parte hartzeko beharrezkoa izango da kaskoa eta ordezkoko ganbera eramatea. Mendiko bizikletaz gozatu eta Leitza inguruak ezagutzeko aukera bikaina izango da irteera honetan.

## → Laburrak

### Gaur aurrekontuen inguruko herri batzarra

**ADUNA** › Aurten udalak aurrera eramango dituen proiektuak zehazteko eta kontuak ateratzeko lehen bilera egin ostean, gaia hobeto aztertuta, bigarren bilera egingo du Adunako Udalak. Bilera gaur izango da 19:30ean udaletxeko Kultur Aretoan.

### Biotxikitzaila Berastegira eramateko asmoa dute

**BERASTEGI** › Aurreko urtean bezala, biotxikitzaila Berastegira eramateko asmoa du udalak. Honela, neguan zehar kimatutako zuhaitzak, adarrak eta abar txikitu eta konposta egin ahal izango dute berastegiarrek. Biotxikitzaila martxoaren 12an ekarri nahi dute, baina horretarako martxoaren 9a baino lehen izena eman beharko da. Informazio gehiago eskuratzeko udaletxeko idazkaritzara jo behar da.

# Udal tasen eta zergen hobariak eskatzeko epeak zabalik daude

Landidearteko gutxieneko soldata dutenek eta familia ugariak eskatu ahal izango dituzte

**Maier Ugartemendia** Ibarra

2011ko udal tasen salbuespenak eta hobariak eskatzeko epea zabaldu du Ibarra Udalak. Familia unitate bakoitzeko 2011rako indarrean dagoen landidearteko soldata minimoa (641,40 euro) baino gutxiagoko sarrerak egiazta-


tzen dituzten pertsona fisikoek onurak hauek jaso ahal izango dituzte. Onurak zabor-bilketagatikotasaren salbuespen osoa izatea, eta ur eta estolderiaren gutxienezko kontsumoaren zenbatekoaren hobariaren ordaina izatea dira.

Onura hauek eskuratzeko, familia unitatez hartuko da, egoitza berean bizi den pertsona multzoa. Gainera, hobaria eskuratzeko familia unitatearen partaide guztiak Ibarra eroldaturik egon behar dute. Hobariaren eskaerak Ibarra Udalaren Gizarte Zerbitzu sailean aurkeztu

behar dira, martxoaren 4a baino lehen. Beharrezkoa den dokumentazioa ere eraman beharko da udaleko Gizarte Langilearen bulegora.

### Familia ugariak

Ibarra familia ugariako tituluarren jabe direnek 2011 urteari dagokion Ondasun Higiezin zergen hobaria eskatu ahal izango dute martxoaren 4a baino lehen Gizarte Zerbituen sailean. Zergaren %50eko hobaria aplikatuko zaie familia ugariako titular izan eta baldintza hori justifikatu dezaketen subjektu pasiboak.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	16°
HOTZENA	7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Irudia** Villabona




**MUNDUKO IPUINAK GUREAN**

Herenegun goizean Villabonako Dr Fleming eskolan ipuin kontalariak gozatzeko aukera paregabea izan zuten. Agenda21 proiektuarekin lotutako ekitaldia izan zen, hain justu, Eguzkik munduan zehar ikasitako ipuinak kontatu zizkien Villabonako gazteei. «Australian, Afrikako Ganan, Ameriketako Bolivian eta Euskal Herriko bere base-rian ikasitakoak, hain zuzen ere. Ikasleek eta irakasleek arretaz jarraitu dugu narrazioa», argitu dute eskolako arduradunek. HITZA

**Agurrak**




**Urte askoan!**  
**Arhane Lertxundi Romo (Amezketeta)**, Gaur 2 urte. Zorionak amona, aitona eta osaben partetik.



**Urte askoan!**  
**Eñaut Otegi Lasa (Alegia)**, 6 urte. Zorionak eta besarkada handi bat familia osoaren partetik, ondo pasa!!! Muxuak.



**Urte askoan!**  
**Amalur Beloki Tobar (Alegia)**, Gaur 6 urte. Zorionak Garazi eta etxekoan partetik.



**Urte askoan!**  
**Araitz**, Gaur 1, 2, 3, 4, 5 urte. Zorionak gure poxpolinari, etxekoan partetik eta bereziki Garaziren partetik.

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Aduna**, Gaur 19:30ean udal-tertxeko kultur aretoan aurrekontu parte-hartzaileen inguruko herri batzarra egingo dute.
- **Tolosa**, Musika Bandak igande honetan eskainiko duen kontzertuan parte hartze deia luzatu nahi die. Hitzordua bihar izango da 20:30ean Musika Eskolan.
- **Tolosa**, Larunbateko Kantu Jirran ateratzeko entsegua bihar Musika Eskolan 20:00etan.

**INAUTERIAK**

- **Tolosa**, Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. Lehiaketan parte hartu nahi duenak izena eman dezake bai kultur etxean eta baita helbide honetan [www.tolosakouda-la.org/inauteriak/](http://www.tolosakouda-la.org/inauteriak/).
- **Tolosa**, Aiz Orratz elkartearen

mozorro lehiaketa larunbatean izango da, Harizpe jubilatutako elkartean. Lehiaketan parte hartzeko epea etzi bitarte egongo da zabalik. Izena Aiz Orratz elkartean eman beharko da 19:00etatik 20:30era.

- **Ibarra**, Kaldereroetan txaranga-garen doinuak dantzatzeko ikasleentzako antolatutako Alurr dantza taldeak. Hitzordua gaur izango da 19:30ean Alurrun lokal zaharrea.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa**, Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
- **Leitza**, Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan iritzien erantzukizunik.

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO** hitza info  
bertako egunkaria  
**egin zaitez harpidedun!**

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tosaldea.hitza.info](http://www.tosaldea.hitza.info)  
[www.leitzaldea.hitza.info](http://www.leitzaldea.hitza.info)

eraman/bidaliz izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K.:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>